

Ihesi

Testua eta argazkiak:
A M A I A U G A L D E

Euskal Herria ezagutuz: **Zuia (Araba)**

Koadrila lasaia

Antzina Zuiako harana aintzira handia zela jakitean harritu egiten da norbera. Baina bere paisaien berdetasunaz jabetu eta gero, irudimena martxan jartzea ez da hain zaila. Araba iparraldean gaude, Gorbeia ren hegoaldeko aurpegiaren magalean. Herrixka txikien, urtegien eta mendien ingurunea da Zuiako koadrila.

Urduña aldetik Murgiarako bidea hartuta sartu gara Zuiako koadrilan. Lehen geldiuena Goiuri—edo Gujuli—herrixkan egin dugu. Herrietik irten eta lasterrera Altube ibaiaren ur-jauzia ikus daiteke. Autoa utzi eta kilometro erdiko bidexka egin ostean heldu gara behatokira. Eguzkiak gogor jo du azken egunotan eta ur-jauzian ez da ur askorik ikusten; uraren indarra nabari da ordea, 100 metro baino gehiagoko garaieratik jausten da eta harria higatu duela ikusten da. Denborarekin harkaitza jan du urak eta litekeena da ur-jauzia gero eta atzerago egotea urteak joan ahala. Goiuri erdi zintzilik dagoela dirudi, amildegian erortzeko zorian balego lez.

Goiuritik Murgiara joan gara.

Zuia udalerriko herriburura. Bertatik bi santutegirako osteratxoa egin daiteke: Jugatxira eta Oroko Andra Marira. Bigarrena aukeratu dugu guk. Zuiako zaindaria da ama birjina hori, eta ez dago oso argi Oro hitzaren esanahia. Or-aurrizkiak altuera esan gura du euskal toponimian, eta izenak jatorria hor izan dezakeela diote aditu batzuek. Bitoriano auzotik bi kilometro eskasera dago Oroko Santutegia eta autoan joan daiteke bertaraino. Oinez ere egin daitekeen bidea da, auto askorik ez baita pasatzen. Gora heltzean baina, izango dugu ingurutik ibili eta bazterrak ikusteko aukera. Kareharriak egiten dituen eskailera naturaletan gora eta behera, Zuiako koadrilako bista onenetakoaz goza daiteke gain txiki horretatik. Zuia udalerrira ederto ikusten da bertatik. Eguraldiak lagunduz gero, lasaitasunaz eta pasaiaz gozatzeko leku paregabea da.

Murgiara jaitsi, eta bertan, hainbat kontu

daude ikusteko. Eztiaren museoak bisitatu genezake, esaterako. Han ikusiko dugu Gorbeia inguruko eztiaren non eta zelan egiten den. Gure arbasoek erlauntzean erabiltzen zituzten tresnak daude museoan, eta zelan moldatzen ziren ikasteko aukera dugu. Eztiaren museotik irten, eta gura izanez gero beste txango bat egiteko aukera dago Murgian. Jugatxiko santutegiraino osteratxoa egin daiteke, eta bertatik Zuiako parajeaz berriro gozatu. Gorbeia mendia ere bertan dugu, eta Parketxean Gorbeia Parke Naturala gehiago ezagutzeko interpretazio zentroa dago. Bertara ailegatzeko, Murgiatik Sarriarako bidea hartu behar da.

Arabak ez du itsasertzik, baina bai kostaldea

Zuiako koadrilak herrixka txiki ugari dauzka, eta horietan nekazal turismoa egiteko aukera asko dago. Autoa hartu, Murgiatik abiatu eta Zigoitiko Udalerrirantz jo dugu. Herri txikien lasaitasuna maite duenak bertan du paradisua. Ezinbestean Manurga nabarmendu behar

Ullibarri-Gamboia da Zuiako koadrilako hiru urtegiatan handiena. Bisitari gehien erakartzen duena ere bai.





Oroko Santutegia eta Goiuriko ur-jauzia, Zuiako koadrilako lekuri ezagunenetako bi. Santutegiari dagokionez, ez dago guztiz argi nondik datorren Oro izena, baliteke Or- aurrizkia –altuera esan nahi du euskal toponimian– izatea haren jatorria.

dugu: Gorbeia ren hegalean kokatuta, haran osoko ikuspegi ederra dugu handik. Eraikin esanguratsu batzuk ere gordetzen ditu herriak, Hurtado de Mendozaren dorretxea edo San Martin eliza esaterako.

Aurrera egingo dugu, Zuiako koadrilaren bereizgarritasunetako bat aurkitu arte: urtegiak. Herririk kostaldeko herri bihurtzen dira hiru urtegiaren inguruan: Ullibarri-Gamboa, Urrunaga eta Albina. Zigoitia ingurutik etorri z gero, lehenengo ikusiko duguna Urrunagakoa da, Legutianon. Bertan piraguan ibiltzeko aukera dugu, adibidez Elosu herrixkan alokatu-

ta. Lasaia da lekua, harrizko kala txikiz bete.

Ullibarri-Gamboako urtegia, Arrazua-Ubarrundian, handiagoda. Hemen askoz ere jende gehiagoda bil joan-etorrian. Izan ere, urtegi horrek oinez edo bizikletaz ibiltzeko ibilbide atondua du inguruan. Urtegi osoari buelta ematen animatzen denak 45 kilometro egin ahalko ditu. Larregitxo dela irudituz gero, lasai, ibilbide txikiagoda bi ere badaude: 33 kilometrokoa luzeena, hamabikoa laburrena. Dena dela, urtegiari buelta eman barik herrixkatik herrixkarako ibilbidea ere egin daitezke. Adibidez,

Ullibarri-Gamboatik Landarako bidea ederra izan daitezke joan eta etorri egiteko. Bi herrixketan, atsenden hartzeko eta mokaduren bat hartzeko aukera izango dugu. Baita Aramaion ere, urtegietatik iparrerantz joanda. Bera da koadrila –eta Araba– osoko herririk euskaldunena, eta gainerakoek bezala, hainbat opari ditu begientzat. Arangioko mendilerroak, Urkiolako Parke Naturalaren bihotzean, paisaia ikusgarriak eskaintzen ditu. Anbotoren tontorra ere ez dago urrun ibiltari adretsuentzat, Bizkaiko lurretan egoteagatik. ■

ZUIAKO KOADRILA



www.cuadrillazuia.com

Informaziorako telefonoak

Zuiako Koadrila	945 43 01 67
Zuiako Koadrilako Turismo Bulegoa	945 43 04 40
Bisita gidatuak Zuiako Koadrilan zehar	945 24 38 28





Cuadrilla de Zuia-ko Koadrila

Arriateko Foru Alkandia
Diputación Foral de Álava